

Lehen Hezkuntzako 3. mailako guraso agurgarriok:

Bidaltzen dugun dokumentu hau, guraso eta ikasleek eurek sinatu beharko dutena, CHROMEBOOK HP Fortis G1M11C MT8186 Education Edition, Intel Celeron N4500-aren **kontratua da**. Kontratu honek ondoko ezaugarriak ditu:

- Finantzaketa modua: renting sistema.
- Ondokoak ditu barne:
 - Chrome Device Management software lizentzia.
 - Cannon digitala Barneko disko gogorra.
 - Zorro gris eramangarria, sorbaldarako, "-11.6" (Laptop Sleeve-Black).
- Prezioa: 27 €ko kuota 25 hiletan (2 urte + hile bat, BEZ barne).
- Eramangarri hau hezkuntzarako beren-beregi sortua dago. 11,6"ko HD pantaila du (29,5 cm), isladapenen kontrakoa, 220 nits, 45 % NTSC (1366 x 768). Eredu hauetarako, «11 G9», HP-k Intel prozesadorea erabiltzen du, Celeron N4500 2.800GHz, RAM LPDDR4x-4266 MHz 4 GB (integratua) eta 32 Gbytes-etako eMMC memoria. Combo Intel® Wi-Fi 6 AX201 (2x2) eta Bluetooth® 5, MU-MIMO bateragarritasuna eta Miracast. MIL-STD 810H diseinu sendoa du, isurketetarako erresistentea, etxeko toalla batekin garbitu daitekeena. 47 Wh-tako bateria du HP Fast Charge teknologiaduna (%90 90 minututan. USB Type-A eta Type-C atakak ditu, 3,5 mmko audio konektorea eta microSD txartelerako sarrera.
- Chromebook-etarako onartutako proposamena Telefonica-k Euskadiko ikastetxeetarako egindakoa da (Partener HP), kalitate eta bermeagatik, azken hauek eta intzidentziak Euskadiko HP-ren Zerbitzu Tekniko Baimenduak ematen duelarik, zeinetan Telefonica-ko bezeroek lehentasuna duten. Modu honetara, intzidentzia eta konponketen kudeaketa-denbora laburtzea lortuko dugu.
- Ikastolaren konpromisoa: ikasleen beharrian eta errealitate pedagogiko berrietara egokitzeko eskola-materiala hornitzea (konpetentzien araberako ikas-irakaskintza), kostea gehitu barik.
- Ikastolan, gure ikaskuntza-prozesuaren oinarria tresna analogikoak eta zuzeneko elkarrekintza dira; Chromebook-a, beraz, ez dator horiek ordezkatzera, arlo guztietan modu zeharkakoan balio erantsia ematera eta ikasitakoa aberastera baizik. Gailu digital hau ingurune seguru baten barruan erabiliko da, ikasleek informazioa modu kritikoan baloratzen, edukia modu sortzailean ekoizten eta teknologia era arduratsuan kudeatzen ikas dezaten. Erabilera hau, betiere, ikasleen ongizatea bermatzeko ezarritako osasun- eta ergonomia-gomendio guztiak zorrotz errespetatuz eta jarraituz egingo da, gailuaren eta gainerako ikasmaterialekin arteko oreka osasuntsua ziurtatuz.
- Segurtasuna bermatu nahi dugu Ikastolan bertan eta kanpoan ere, eta azken urtetan martxan jarritako protokolo eta esperientzia berberak jarriko dira indarrean: ikasle bakoitzak kargagailu bana izango du esleituta eta bere toki aproposa armairu batean batera kargatzeko, ikasmahaian gailua gordetzeko kutxa izango du, urradura eta kolpeetatik babesteko estalkia izango du, norberaren izenarekin identifikatuta egongo da eta Ikastolan egongo da irakasleek kontrolatzen dituzten espazioetan erabiliko dira (gela, balio anitzeko gelak, zientzia eta teknologia tailerra, etab.). Udako oportunitatean etxetara eraman ahal izango dira eta ikasturte hasieran bueltan ekarri. Ikaslea eta familia erabilera desegokiaren arduradunak dira.

Apurketak

- Gailuak edozein kalte fisiko edo funtzionamendu-arazo izanez gero, prozedura beti ikastolako IKT sailaren bidez bideratuko da.
 - Gailuaren erabilera arruntaren ondoriozko matxurak ikastolak kudeatuko ditu.
 - **Familiak bere gain hartu beharreko kasuak:** Kaltea **nahita egindakoa** erabilera desegoki baten ondorio zuzena edo **arduragabekeria larria** bada konponketaren kostu osoa **familiaren ardura izango da**.
 - Istripuz pantaila apurtuko balitz, sortutako matxurak beira likidua duen pantailari eragiten badio, lehen aldian, 30 € gehi BEZa duen frankizia ordainduko du familiak; 30 € gehi BEZa bigarreanean; eta 60 € gehi BEZa hirugarrenetik aurrera. Familiek, erreziro bidez ordainduko dute diru-kopuru hau.

OHARRAK:

1. Azken finean, Chromebook-aren gaineko ardura ikaslearena da eta, beraz, bere gurasoena. Erabilera arduratsua geletan irakatsiko da, baina etxeko hezkuntzarekin ere indartu beharko da.
2. Chromebook-aren aplikazio guztiak, Android-az gain, bateragarriak dira Windows eta Linux-Ubunturekin, beti ere Google Chrome nabigatzailea erabiliz.
3. Ikasleak Laurotik alde egiten badu (Ikastolan baja bada), gurasoek kuota guztiak ordaintzeko konpromisoa eta ardura hartuko dute, eta berdin-berdin, epea amaitzean, gailua ikaslearena izango da.
4. **Bi urteko epea amaitzerakoan, Chromebook-a ikaslearena izango da.**

Guraso 1: izen-deiturak, eta sinadura: _____

Guraso 2: izen-deiturak, eta sinadura: _____

Ikaslearen izen-deiturak, eta sinadura: _____



Idoia Iruretagoiena,
Lauro Ikastolako Zuzendari Gerentea